



Astekaria



elgoi



AZOKA SASOIA

**Mendarotik
Elgoibarrera**



**SAMSUNG
KAMERA U-10**

65.900
pta. BEZa BARNE

Abenduak 16-23-30

*larunbata
arratsaldez
irekita*

MILAR ARTEGI

IRUDIA - SOINUA

GABONETAKO ESKAINTZA BEREZIAK

San Frantzisko, 40 • ELGOIBAR • Tel. (943) 74 06 87 • GIPIZKOA



MENDAROKO UDALAK
GABON JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON BAT
OPA DIZKIZUE
HERRITAR GUZTIOI

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.

PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldeggi, Andres
Alberdi, Esteban Antxustegi,
Pello Arrieta, Felix
Arrizabalaga, Mikel Artola,
Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,
Jon Eugi, Ina Garagarza,
Joseba Gorosabel, Lorea
Gorostiaga, Amaia
Gorostiza, Xabier Gorriti,
Ana Igartua, Maite Iriondo,
KOKOE, Joseba Konde,
Eduarne Kortza, Imanol
Larrañaga, Javi León,
Antonio Matias, Susana
Mujika, Maite Solozabal,
Karmelo Urdangarin, Julen
Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.



Sinpletasunean murgilduz

Egia esan, komunikabideei buruz eta hauetan esandakoei buruz hitzegitea tentazio ikaragarria da. Inoiz iritzi artikulurik idatzi ez eta horretarako gai ez dela uste duena saia bedi Euskal Herrian argitaratzen den edozein egunkari hartu eta harritzen duen edozein titular aukeraturik hari buruzko bere iritzia azaltzen. Hobeto edo okerrago, idazten dakien edonork egin lezakeen lana dugu.

Kritika erraz horretatik ihes egin nahian ibili arren - artikulua sinplegia gertatuko den beldurrez -, tentazioa, ordea, izugarria da komunikabideetan entzuten direnak entzun eta gero.

Presoek Euskal Herriatik hurbil egon beharko luteke, baina dispersaturik. Hauxe da titularra eta hauexek dira Atutxaren hitzak (honetan, gainera, bospasei gartzelaren izenak ere aipatu zituen: EHkoak, Logroñoakoa...).

Ez nuen nahi. Baina egunotan jira-biraka ibili zaizkit Atutxaren hitzak, eta hitzok ekuazio matematikoa bailiran hamaika aldiz lerrokatu izan ditut emaitza ziurtatu nahian; eta emaitza eta hitzak, eta hitzak eta emaitza ehundaka bider miatu ditut ahalik eta formula logikoenak erabiltzen saiatuz.

Inkongruentziaren inkoherentzia edo alderantziz, inkoherentziaren inkongruentzia = X; jadanik ez dakit zein den faktore ordena, edo eta ordena


aldatzeak emaitza aldatuko ote duen. Zoratzekoa! Halakoetan faktoreak eta hauen balioa lasai interpretatzea da egokiena, sinpletasunak ipin diezazkigukeen oztopoak baztertu nahi baditugu behintzat. Hau da: 600 preso: 6 gartzela = 100 preso/gartzelako (eta gainera EHn edo hemendik hurbil).

Formularen garapen teorikoari dagokion lanak sortutako zalantzak argitu eta ikusmena asetu nahian, maila pragmatikora abiatu beharko genuke. Nola gauzatuko litzateke ditzosozko dispersioa? Gartzela bakoitzeko presoek isolaturik egon beharko lukete elkar ikus ez dezaten? Gartzela horien arteko zirkuitu turistikoa antolatu behar al dute presoan arteko harreman egonkorrik egon ez dadin? Berriz ere zorabiatzen hasi naiz. Formularen huts egin al dut? Gaurkoz nahikoa da. Bihar itzuliko naiz berriro nire eragiketa matematikoetara.

Eta halaxe gabilta egunerok, komunikabideetan esandakoak aztertze alferrikako lan honetan. Alferrikakoa diot, azkenean komunikabideek hitzak eta gertaerak baino, zenbaiten protagonismoa azpimarratzeko balio dutela ulertu dugulako; fotograma gehien betetzen duen aktorea filmearen protagonista delako edo izan nahi duelako behintzat, horretarako aktore nagusiaren burua zapaldu behar badu ere.

Lorea Gorostiaga

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

IMI (Informatika gela) itxi behar dutela entzun dut. Egia al da? Eta egia bada, zergatik?

Alkatearekin egon gara eta berak esan digunez duela hiru urte eten ziren IMI mantentzeko dirulaguntzak. Halere, Elgoibar izan da Deba Behean IMI mantendu duen bakarra. Momentu honetan, azterketa ekonomikoa egiten ari da Udala, itxi ala ez erabakitzeko.



KEXAK

Irakurle batek San Rokeko kanpan eta San Lorentzoko aparkalekuan kotxeak garbitzen dituztenak salatu nahi ditu. Euren "lana" amaitu ondoren, benetan zikin lagatzen omen dituzte aipatu tokiak. Kotxeak garbi edukitzeagatik ezingo ditugu paraje horiek zikindu, ezta?



TXALOAK

Kirolzale batek deitu digu nagusien eskubaloi taldea txalotzea nahi duela esateko. Batere aproposak ez diren baldintzetan, lehenengo itzulia partidurik galduta gabe amaitu dute eta sailkapenaren buruan omen daude. 2. bueltan beste horrenbeste egiteko zortea izan dezatela esanaz agurtu zaigu.

ESKUTITZAK

Zeinen interesak ezkutatzen ditu Karakateko antena berriak?

Karakate Bizirik plataforma akusazio gogorak jasan behar izan ditu Komunikazio Zentruaren eta antenaren erakuntzaren arduraduna den Euskalnet S.A. ren aldetik. Gainera Karakatera martxak neurritz kanpoko presentzia poliziala sufritu zuen. Baina hori ez da dena: joan den hilaren 21ean, Karakate Bizirik-ek jarritako pankartak erretiratu egin zituzten. Parke Natural behin betiko izendatzea eskatzen genuen. Batetik, Eusko Jaurlaritzak 1992an "Catálogo de espacios y enclaves naturales de la CAV" ikerketan Karakate-Hirukurutzeta garrantzi handiko babes-gune zela zioen, eta bestetik, ikerketa horren alde eta proiektu hori aurrera eramatea eskatzen duten pankartak kendu zituzten.

Kontraesan honek berriz adierazten du euren asmoa mobilizatzen garenok zapaltzea dela. Errealitate honi aurre egiteko sasoa da. **MOBILIZA ZAITEZ!!**

Joan den 24an, hamar lagun Karakatera hurbildu ginen, bertan lanean ziharduten langileak informatzeko asmoz. Ordubetez berbetan egon ginen, giro lasaian, guzti honen lekuko langileak direlarik.

Karakatetik beheranzkoan Ertzantzak geldiarazi egin gintuen Argate-Buru inguruan. Euren hitzetan "os hemos retenido porque Karakate es una zona de sabotajes y no podéis acceder a ella sin ser identificados". Aitzakia besterik ez zen, ez baitzuten beste inor geldiarazi; gainera, erretentzio hau Karakatetik urrun gertatu zen. Gertaera hau gazteen aurkako kriminalizazio kanpaina baten barruan kokatzen dugu.


Ertzantzak beraien susmoak gezurra zirela egiaztatu bazuen ere, ez ziguten joaten utzi. Gu identifikatzea zen beraien nahi bakarra, edozein egunetan zerbait gertatuko balitz Karakaten errua guri botatzeko. Ondoren Bergarako basera eramango gintuztela mehatxatu gintuzten.

Istripu bat zelakoan auzokide bat guregana hurbildu zen, baina Ertzantzak handik alde egiteko agindu zion. Garbi dago arrazoirik gabeko erretentzio horren testigurik ez zutela nahi. Herrian berria zabaldu bezain laster, jendea gora igotzen hasi zen. Hau ikusirik, Ertzantzak jarreraz aldatu zuen eta bi pertsona bakarrik identifikatu eta gero utzi gintuzten bakean. Ordu t'erdiko arrazoirik gabeko erretentzio horren arduradunak arrazoa geneukala adierazi zuen gainera.

ARRAZOIA DAUKAGU, NOSKI BAITEZ. MOBILIZA ZAITEZ.

Karakate Bizirik Plataforma

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





San Antonio de Urkiolan atera zuten erretratu hau 1943an. **Kontxa Azkue** laga digun irudi polit honetan mendira bueltatxo egiteko asmoz atera zen elgoibartar kuadrila ageri zaigu.

Ikus dezagun zeintzuk diren: Goitik behera, ezkerretik hasita: **Basilio Igartua**, **Gillermo Garmendia** (†), **Jose Maria Ansola**, **Jose Luis Ajubita** eta **Ramon Maiztegi**.

Makurtuta: **Manolo Arregi** (†), **Federiko Azkue** (†), **Pako Iriondo** eta **Julian Azkue** (†).



**ASEGURATU
ZURE
TIROA**

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

S **Maria Angeles**



Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 75 59 86



Nor ez da hasi, dagoneko, Gabonetan hari eta honi egin behar dizkion opariekin pentsatzen? Urtero buruhauste berdina izaten da. Nori zer erregalatu pentsatzeak bati baino gehiagori demaseko burukomina sortzen dio. Eta poltsikoak hustu ere egiten

ditu. Gaurkoan, hainbat ideia orijinal ekarri ditugu gure artera. Batetik, opariei buruzko proposamenak eman eta, bestetik, zein baino zein merkeago egiteko asmoz. Gustuen eta abildadean arabera, bada zer aukeraturik. Oraindik ere badago astia. Jarri martxan, beraz.

SEBAS LARRANAGA

“Askotan jendiak dendetan erosten ditxu oparixak jakin gabe etxian imaginazio pis-katekin gauza benetan politxak egin daitezkeela. Pintzelak eta margo batzuk erregalatu, mila gauza egin daitezke”.



Kamiseta pintatuak

MATERIALA: Kamiseta bat (edo beste edozein prenda, prakak, txapelak, boltsak...), hiru dimentsiotako margoak, tela gainean margotzeko pinturak eta pintzelak.

NOLA EGITEN DEN: Marrazkia aukeratu eta zuzenean kamiseta gainean marraztu edo kalkatu eta gero pintzelen bidez margotu egin behar da. Hiru dimentsiotako margoak erabiliz, ilea lehortzeko aparatuarekin edo plantxa bero batekin lehortuz, margoa puztu egiten da. Bistara, erliebean egongo balitz bezala geratzen da.



ARANTZAZU ZIALTZETA

“Lora freskua politxa da baina usteldu eitzen da. Udan hartutako lorak sikatu eta haien koloria eta usaina gogoratzen dezu negu guztian”

Lora sikuz eginiko sortak

MATERIALA: Lorak, esponja eta ontzi bat.

NOLA EGITEN DEN: Gustuko lorak biltzen dira, sasoiari sasoikuak, larrosak, klabinak... Erosi ere egin daitezke. Lora fresku horiek, multzoka, soka batekin lotu eta buruz behera zintzilik jarri bihar dia etxe barruan, toki ilun batian. Sikatzen dianian, norberan gustura esponjan sartzen jun, formak eta koloriak konbinatzen. Segun zein tokitan ipini nahi dan tamaino ezberdinetakuak ein daitezke. Lorak asko zikatuz gero, laka bota laike baina usain naturala galdu eitzen dau. Bukatu eta gero esponjia lora sikuekin minbrezko ontzi batian sartu leike.



INIGO ARIZAGA

“Zopa egiten ikusi naban ura irekitzen hasterakuan tapia mobitxu eitzen zala. Eta okurritxu jatan mortero bat eixia posible izango zala”.


Morteroa

MATERIALA: egurra, okumena, hiltzeak, bisagra bat, tapoi bat, elektrizitateko tuboena euskarria, kortxoa, puruak sartzeko metalezko hodi bat eta alkohola.

NOLA EGITEN DEN: Egur zatirik handienaren gainean beste zati txikiago bat josten da hiltzeekin. Bigarren zati honi bisagra baten bidez beste egur zati bat lotzen zaio. Okumenarekin, arku erdi bat egin eta hiltzeaz egurrari josten zaio. Puruaren hodia gaineko egurraren gainean, elektrizitate tuboena euskarriez ondo engantxatu behar da.

FUNTZIONAMENDUA: Tapioan alkohola jarri eta su ematen zaio. Puruaren hodian ura sartu eta

kortxoaz estaltzen da. Suarekin hodia berotu eta ura irakiten hastean presioaz kortxoa botatzen du.



AITOR AGIRREZABALA

“Umetan zigortu egin ninduten etxetik atera gabe. Ez aspertzeko itsasontzi baten maketa oparitu zidaten. Azkenean, ez nuen etxetik atera nahi, maketarekin biziatu egin nintzen”.


Maketak

MATERIALA: Maketak berak dakar behar den material guztia baina erremintak norberak izan

behar ditu etxean: taladroa, limak, lijak, pegamentua, cuter bat, gurizeak, alikateak...

NOLA EGITEN DEN: Kaxan datoz instrukzioak eta planoak, benetako itsasontzien maketak izaten dira eta horien historia ere ekartzen dute idatzia. Horiek jarraitu behar dira hasieratik bukaerara, eskeletotik hasi eta gainontzeko guztiarekin jarraituz. Esku ona eta pazientzia handia behar

dira baina edonork egin ditzake. Lasai jarri eta konturatu gabe pasatzen dira orduak. Itsasontziak ezezik, hegazkinak, trenak eta beste hainbat gauzaren maketak ere badaude, adin guztietarako.



BEA ANSOLA

“Kaxa bat badaukazu eta dekoratu egin badezakezu eta, gainera, praktikotasuna baldin badauka... zertarako bota?”

Kaxa forratuak

MATERIALA: Era guztiatoko kaxak, latak eta abar, papera, kola eta guraizeak.

NOLA EGITEN DEN: Oso erreza da eta gainera zenbat eta kaja arraruak erabili orduan eta polixaua geratzen da. Gainera, erreziklatzeko era bat da. Papera hartu, kaja gainian ipini eta poliki-poliki forratzen jun bihar da horretarako guraizeak erabiliz mozteko eta kola pegatzeko. Kaja horiek behin forratuz gero edozertarako erabil daitezke, opariak sartzeko ezezik baita gauzak gordetzeko ere, gal-tzerdiak, fularrak, belarritakuak, jertseak... Latak boligrafuak sartzeko ontzi bezala prestatu daitezke.




SORKUNDE AZPIRI

“Agenda hauek ondo errez egiten dira eta politxak geratzen dia gainera. Nik, dendetan berdinak ikusi izan ditut oso garesti saltzen”.

Agenda

MATERIALA: Kartoi gogorra (bi tapa), papela, zintak, iron-fix tela, guraizeak eta kola.

NOLA EGITEN DEN: Kartoi zoko tapa bakoitza gustuko koloreko iron-fix telakin forratzen da. Tapa bakoitzean zulo bat egiten da eta bertatik zinta bat pasatzen. Gero, nahi den papera hartu, koloretakoa, marrazkiekin edo edozein eta moztu egiten da norberak nahi duen bezala. Taparen aurreko aldean jartzen da eta atzetik, berriz ere iron-fix tela zati batekin pegatzen da, papera eta zinta ondo eutsiz. Tapa biak elkartu eta iron-fix telakin pegatu behar dira. Telaren zati batekin tira bat egin eta barruko partean pegatu behar da bertan koaderno bat sartzeko moduan. Boligrafoak egiteko egunkarietako papera hartu, zimurtu, margotu eta forratu.



MARIA LASA

“Ni txikixa nitzanian ere gustuzen jatan horrelako gauzak eixia baina orduan folixuekin eixen genduzen, askoz sinpliauak”.

Zoriontzeko tarjetak

MATERIALA: Kartoi gogorra, fieltrozko tela, guraizeak eta kola.

NOLA EGITEN DEN: Gure kasuan ia dena zetorren eta guk montatu besterik ez gendun ein bihar, patroia moztu eta pegatu. Baina edozein kartoi edo kartulinarekin ere posible da. Gustuko tela hartu, koloretakoa, nahi den marrazkia egin gainean eta moztu eixen da. Ondoren, kartulinian gainian pegatzen da telia eta gero, kartulina barruan zeozer margotu eta nahi dena idatzi.



Noiz egiten dituzu Gabonetako erosketak?



SINAITA NAVARRO
58 urte, etxekoandrea

Gabon bezperan erosten ditut gauzak. Garai horretan jaten diren gauzak bereziak izaten dira eta fresku jatea gustatzen zaigu.




MARIASUN GORDO
35 urte, etxekoandrea

Konjelatu baino nahiago dut freskoa erostea, gainera senarra arrantzalea da. Polboroiak eta turroiak erosi ditut baina gehienak jan ditugu dagoeneko.



PATRO GOMEZ
68 urte, etxekoandrea

Erosketarik nagusienak semeak egiten ditu eta dagoeneko esana diot arkumea enkargatzeko. Gainontzean, opariak Gabonetan erosten ditut.



IGNACIO ARIZMENDIARIETA
71 urte, jubilatua

Ahal dan dana egunian, arraina eta holakuak. Arrebakin bizi naiz eta gauza handirikan ez dou bihar. Oparirik ez baina loterixia erosi dot.



MARIMAR GALLEGO
32 urte, etxekoandrea

Oraindik ez naiz hasi ezer erosten, haurrentzat opariak bakarrik, orain aukera handiagoa baitago. Janaria egunak iristen joan ahala erosten dut.



JOSE BARANDIARAN
59 urte, aurrejubilatua

Bakarrik bizi naizenez ez dut gauza gehiegirik erosi behar. Enkargatu eta bezperan erosten dut normalean nahiz eta gauza batzuk amaitu egiten diren.

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58



Nerea Elkoroiribe, 22.
Ikaslea



Jesus Mari Makazaga, 30.
Unibertsitateko irakaslea



Lutxi Arregi, 26.
TBko teknikaria



Maider Elustondo, 20.
Ikaslea

1.000



ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen BAZKIDE KANPAINA



Mikel Cornejo, 24.
Langabetua



Edurne Bilbao, 29.
Zuzendari idazkaria

Elgoibarko GAZTERIARI zuzenduriko

MANIFESTUA

Askotan entzun izan dugu, nagusien ahotik ia beti, gazteok garela etorkizuneko zutabeak, gure esku egongo dela hurbileko etorkizuna. Eta neurri batean zuzen dabiltzala onartu beharko dugu, hemendik hamar-hamabost urtera gure eta gure adineko jendearen arduraren egongo baitira gizarte honetako hari nagusiak.

Hori horrela bada, geroke zain egon beharrean, zergatik ez ardurak oraintxetik hartzen hasi? Hauek mota askotakoak izan badaitezke ere, guri dagokigunean badaukagu benetan kezkatzen gaituen bat: **EUSKARAREN ETA EUSKALDUNON ETORKIZUNA.**

Seguru gaude zu ere ...

(Jarraituko du)



OLENTZERO 95

Abenduak 24, igandea
Goizeko 11etan Plaza Handian

EGITASMOA:

- Malaraino kantu eta kalejira tartekatuz.
- Plaza Handian Olentzerori eskutitzak emango dizkiogu.
- Segidan, Olentzerok goxokiak

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA





Gabonak iolasean

Abenduak 26-27-28-29
Urtarrilak 2-3-4-5
DLHko 1-2-3 mailentzat
Goizeko 10etatik eguerdiko 1etara
Berezioa: 2.000 pta.

*Paradizoa (Palacio, Pirratx eta Porrotx),
Antzerkia (Fauçada), Gabonetako
opariak, Eibar-ko parkera*

IZENA EMATEKO:
Elgoibarko Izarra K.E.
Ubitarte 4, behea
Tel. 74 16 26
EPEA:
Abenduaren 18tik 22ra



100.000 pta.ko saria

tokatu zaio argazkian ageri den Edu Urbiola elgoibartarrari Egunkariaren tonbolan. Karobi tabernan salgai dituen boletotariko bat erosi zuen "txirripaz", barraz bestalde lagunekin trago bat hartzen zegoela. Sorpresa demasa izan zen 100.000 pta.ko saria ikustean. Gabonak behintzat primeran pasako dituela esan digu Eduk, dudarik ez!



Xabier Lizaso Orioko pianojoleak aparteko konzertua eskaini zuen asteazken iluntzean Herriko Antzokian. Musika Fundazioak antolatuta, Lizasoren eskuen eta pianoaren teklen arteko armoniak pieza klasiko eta ez hain klasikoekin gozatzeko aukera eskaini zuen.

■ Jaiotzen IX. Lehiaketa

Parrokiako Katekesiak Jaiotzen IX. Lehiaketa antolatu du hurrei zuzendua. Banaka edo taldeka aurkeztu daitezke lanak, nahi den materialez eginak baina guztien gaia Jesusen jaiotza izan behar delarik. Gehienezko neurria 75x55 izango da. Parte hartu nahi dutenek abenduaren 16an, goizeko 11ak eta 1ak bitartean Ubitarteko lokalean eman behar dute izena eta 17an, Parrokiako arkupeetara eraman behar dituzte eginiko jaiotzak. Epaimahaiak kontuan izango ditu orijinalitatea, estetika eta nola adierazten den Eguberriaren zentzua. Jaiotza guztien erakusketa egingo da San Bartolome kaleko 33. zenbakian. Bost sari banatuko dira, bakoitzari trofeoa eta opari bat emanaz.

■ Jostailuak jasotzeko kanpaina hasi da

Elgoibarko Gurutze Gorriak haurrentzako jostailuak biltzeko kanpainari ekin dio. Gabonak gertu dauden sasoi honetan aukerarik ez dutenentzat jostailuak biltzea da asmoa. Etxean baztertuta dauden jostailuak Gurutze Gorriak Aita Agirre plazan duen egoitzara eraman daitezke arratsaldeko 5etatik 8,30etara bitartean.

■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 22, Odol Emaileen talde bat Elgoibarren izango da odol ateraldiak egiteko. Aurrez deitutako emaileek bai eta emaile izan nahi dutenek ere arratsaldeko 6,30etatik aurrera odola emateko aukera izango dute Odol Emaileen egoitzan.

■ Eski ikastaroa eta eski ikastaroa lhauterietan

Club Ibaik Formigaleko eski estazioan bi eguneko eski irteera antolatu du urtarrilaren 20 eta 21ean. Eski ikastaroa, ekipo osoa, bidaia, aseguruua, bi egunetako erremonteak eta pentsio osoa sartzen dira 13.700 pta.ko prezioan. Izena emateko 74 07 93 edo 74 27 06 zenbakietara deitu.

Bestalde, ihauteri astean, Andorrako Pal Arinsal eski estaziora irteera antolatu da, otsailaren 19tik 23ra bitartean. Egunero bi orduko ikastaroa emango da eta erremonteen erabilera murriztua izango da. Bost eguneko egonaldiaren prezioa 35.000 pta.koa da eta eski ekipoa norberak eramanda, 33.000 pta.koa. Izena emateko Institutuko gimnasia zuzendu eta Manuz galdetu Gabonetako oporren aurretik.



Bazkide berriak egiteko kanpaina hasi du Elgoibarko Izarrak

“1000 baietz” kanpainak adierazten duen bezala, bi urte barru mila bazkide izatera iristea da helburua. Gaur egun Elgoibarko Izarrak 570 bazkide ditu. Hiru fase edo etapa ezberdinez osata dago kanpaina.

Abenduaren 4an izan zen “1000 baietz” kanpainaren aurkezpena. Elkarteko lehenengo militanteek, “Elgoibartarren militantzia euskalgintzan, 1963tik 1980ra bitartean” bizi izandakoari buruz hitz egin zuten aurkezpenaren ostean izan zen tertulian. Lehen fasea gazteei zuzendua dago. Abenduaren 15etik urtarrilaren 15era arte 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean bazkide berriak lortu

nahi ditu elkarteak. Bai BARRENe bidez bai gutunen bitartez, 18 gazte izango dira gainontzekoak bazkide izatera animatuko dituztenak.

Datorren urtean bigarren faseari hasiera emango dio elkarteak. Urtean zehar elkarteak antolatzen dituen ihardueretan elkarteko bazkide izateko gonbidapena luzatuko zaie ekin-tzetara hurreratzeko direnei. Nagusiei zuzenduriko kanpaina zehaztu gabe dagoen arren, 1996ko abenduaren 15etik 1997ko urtarrilaren 15era bitartean burutuko litzateke. Hauxe litzateke hirugarren fasea. Azkenik, bazkide guztiekin “Bazkideen Jaia” antolatzeko asmoa du elkarteak.



ESOZIA JATETXEA

Ospakizun berezietarako nahiz egunerokorako toki aproposena. Zugandik oso gertu!

Gabon Zoriontsuak igaro eta ea 1996a Urte On bat izaten den guztiontzat!

Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

Nagusien omenezko astea burutzen ari da Jubilatuen Etxea

Herriko edadetuen astea ospatzen dihardute egunotan Jubilatuen Etxean. Musika ekitaldiak izan dira aste honetan nagusi. Parrokiko eta Itxaropena abesbatzek eta Inazio Bereziartua musik eskolako ikasleek emandako kontzertuak belarririk finenak asetzeko gai izan ziren. Belarrien gozamenerako ezezik, kaleko hotzak uxatu eta sabela berotzeko txokolate jana izan zuten asteazken arratsaldean. Ostegunean Gabonetako 100 otar zozketatu

ziren eta segidan elkarbizitza sozialari buruz hainbat irakaspen eskaini zituzten Maite Vallejo eta Enrike Larrañagak. 80 urtetik gorakoei eta aurtun urrezko eztaiak egin dituztenei omenaldia egin zaie gaur goizean, ostirala. Plaentxi bikotearen jardunarekin asteburuko ekitaldiei hasiera emango zaie. Larunbatean kina berezia izango dute. Igandean berriz, jubilatuen meza eta arratsaldean dantzaldia izango da Gelatxo Orkestarekin.



■ Nutrizioari buruzko hitzaldia asteazkenean

Elgoibarko Izarrak antolatuta, nutrizioari buruzko hitzaldia emango du hilaren 20an Edurne Ugarte endokrinologia eta nutrizioan espezialista eta Cruces-eko endokrinologia zerbitzuko sendagilea denak. Obesitatearen zergatiak eta arriskuak eta nola argaldu gaixotu gabe azalduko du. Saioa 7,30etan izango da Kultur Etxean.

■ Hitzaldia Mekanikan

Elgoibarko Institutu bateratuak Hiesari aurrea hartzeko heziketari buruzko hitzaldia antolatu du hilaren 19rako, asteartea. Ana Las Heras psikologoak hitz egingo du gurasoei eta herritarrei orokorrean zuzenduriko saio honetan. Hitzaldia arratsaldeko 7etan izango da Mekanikako areto nagusian.

■ EAJren 100. urteurrena

Iganden, hilak 17, EAJ alderdiaren 100. urteurrena ospatuko da Gernikan. Bertara joateko Elgoibarko Uri-Buru Batzarrak autobusa antolatu du. Sigmatik aterako da goizeko 9,30etan. Izena emateko Plazako Batzokitik pasa edo 74 27 44ra deitu.



■
dekorazioa

Felix Etxeberria:

"Euskeriari injekzio txiki bat falta jako"

Parapan baserrian jaio zen orain 69 urte. Elgoibarren oso ezaguna dugu Felix Etxeberria gauza asko egin izanagatik. Horregatik ekarri dugu gure artera, bera protagonista izan den

hainbat esperientzia eta bizipen jakin ditzagun. Euskararen inguruan murgildua betidanik, Felix Elgoibarko Izarraren eta Ikastolaren sortzaileen artean egon zen.

- Zer da zuretzat euskarra?

- Nik dudarik ez dakat hizkuntzak desberdinu eitzen gaitxula. Hizkuntzak bere seilua sartzen dio pertsoniari eta zenbat eta zapalduaua egon hizkuntza hori, orduan eta gogo gehixoz sartzen dizu.

- Horrek bultzatu zintuzten elkartzera?

- Bai. 1956 inguruan hasi zan Elgoibarren lehenengo aldiz irakasten euskera. 80 lagun izango ginan eta Don Jose parroquia eta Don Jose Antonio San Pedro zian irakasliak.

- Lokalarekin ere izan zenuten arazorik, ez?

- Bai. Lehenengo Falangeko lokalian ibiltzen ginan baina geuria izango zan lokala erostia pentsatu gendun. Herritarren artian bonuak saldu genitxun, batak hogeituro eman eta bestiak 1.000 pezeta, holaxe erosi genduan Lokala Loriton. Orduan egunez bost urtera arte hasi ginan umiei klasiak ematen.

- Eta Elgoibarko Izarra sortu zenuten.

- Bai, Ikastoliari laguntzeko, euskal kultura bultzatzeko...

- Zenbatean behin elkar-tzen zineten?

- Ixa egunero. Beti zauan zeozer, diru kontuak, inspektoria zala...



"Euskeriak militantiak ezezik, profesionalak ere ditxu oin eta hori inportantia da"

- Bilera klandestinoak?

- Bildur general bat bazauan baina ezkutu-ezkutuan ez ginan ibiltzen.

- Halere, Elgoibarko kuartela ezagutu zenuen.

- Bai, zazpi akusazio neuzkan, euskera klasiak ematen nitxula, propaganda repartitzen nabala... Lau ordu pasatu nitxun eta denbora guztian ibili zian ez dakit zenbat guardia zibil eman eta eman, di-da.

- San Bartolome Ikastola ere zuen eraginez sortu zen.

- Bai, gauza haundixa izan zan. Gu lokal txikixekin hasi ginan baina ikusi

zan beste zeozer bihar zala. Danobatek terrenua eman zaban eta Ikastola berrixa ein zan. Jende asko elkartu zan horren bueltan, esate baterako Luis Peñalva, Luis Mari Iriondo, Agustin Oteiza... Askok, jende asko.

- Lorpenik handiena?

- Ez dakit ba. Gauzak asko aldatu dia. Gure epokan euskerian alde lan eitzen zabana afizionau bat zan. Oin euskeraz bizi gera, baitxa euskeratik ere. Militantzia ezezik profesionalizatu ere ein da eta hori inportantia da.

- Urrezko aro bat bizi eta gero, gainbehera ezagutu

zenuten.

- Nik usten dot Ikastola berrixa ein zanian jende askon burua horretxan atzetik jun zala, ahalegin haundixak eitzen zian aurrera etaratziarren. Bestetik, Franco hil zanian, ematen zaban partido politikuek jasoko zabela euskaria eta...

- Eta?

- Ikusi da ezetz eta ondiok ere, zoritxarrez, Elgoibarko Izarra bihar da. Euskaltzaleek beti bihar izan dabe atzetik zirikatzia.

- "Euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa al da"?

- Izan beharko litzake baina batzuetan ezetz ematen dau, batzuek instrumento bezela erabiltzen dabe euskaria. Egunkarixa sortu zanian ez zaban laguntzarik jaso, errezeluak zeuden. Nola da posible hori?

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

- Ez dakit lortuko dan euskerian normalizaziua. Egixa da oin kalia umiei lehen baino gehixoz entzuten jakuela euskeraz berbetan, asko ein da baina zeozer falta da, injekzio txiki bat edo. Katalanen burua biharko genduke. Eurak erakutsitako ejenplua jarraitxu biharko genduke baina... Ez da erretza, itxuria.

kiliBARREN

Mendaroko gehigarria

Abenduak 15

24. zkia.


Zer moduz feria?



Juanito Loiola

Lasalde baserria

Jendea orain hasi da agertzen baina nik uste dut ugarituko dela eta aurtengoa hasiera bada ere, segitzea merezi du. Nik 17 barietate desberdin ekarri ditut: sagarrak, kiwiak, menbriloa, toma-teak, piparrak, urrak... denetik piskat.



Ana Maria Pelayo

Mendaroko Txokolateak

Ilusioa egin dit Mendaron feria egiteak. Esposizioan dagoen guztia dendan ere badugu eta prezio berdinean. Jendeak gauzak erosi ditzan ahalegintzen gara, gainera, orain Gabonak datozela, aukera ona da erosteko. Feriak interesgarriak dira gauza ezberdin asko ikusteko aukera egoten delako.



Jone Urain

Zeramika Pott

Oso ondo iruditzen zait Mendaron feria egitea. Gu artisau ferietan egon izan gara eta polita izaten da. Nik zeramika egiten dut Maite Zalutregikin eta Ezkio Itsason daukagu tailerra. Niretzako positiboa izango dela uste dut, guri ondo datorkigu hemen inguruan ez gaituelako jende askok ezagutzen.



Maribel Bastida

Atxuri baserria

Ondo iruditzen zait Mendaron feria egitea. Gainera uste dut hurrengo urtean hobea izango dela. Oraindik goiz da baina geroago jendea etorriko dela uste dugu, behintzat esperantzak baditugu. Jendeari azoka edo feriak asko gustatzen zaizkio. Guk behorrak ekarri ditugu.



Juan Ignaio Elorza

Pintore espezialista

Ondo iruditzen jata feria egotea, ambiente ona eta polita dago. Gainera lehenengo aldiz egiten da eta badakizu, jende askok ez du jakiten. Aurrerantzean egin daitekeela uste dut, lana egin behar da eta borondatea izan behar da aurrera ateratzeko.



Xabier Zubiaurre

Ikaslea

Ondo iruditzen zait feria egitea. Lehenengo aldiz egin da Mendaron eta uste dut ambiente ona egongo dela, oraindik goiz da baina jende gehiago agertuko da. Neretzako animala gutxi daude baina bestela ambiente ona dago.



Maritxu Larrañaga

Etxekoandrea

Anbiente ona dago eta feria oso ederra iruditzen zait. Nik askotan ez dut feriarik ikusi eta asko gustatzen zait. Jende aldetik ez dakit baina saltzaile asko ikusten da. Ambiente oso ona dago. Gustura nabil!



Asier Andonegi

Langilea

Oso ondo iruditzen zait feria egitea Mendaron. Oraindik goiz da baina jendia agertuko da. Lehenengo urtia izateko ambiente ona dago. Ez nuen uste hainbeste jende egongo zanik. Hurrengo urtean egiteko ere egokia iruditzen zait.

Kontzezio Azoka

Feria jendez gainezka egon zen

Abenduaren 9an Kontzezio Azoka egin zen Mendaron lehen aldiz. Egun handia izan zen mendarotarrentzat izan ere, estraine-ko aldia baitzen Mendaron barazkiak, fruituak, zeramika, behiak, hegaztiak eta beste hainbat gauza feria batean bilduta ikusten genuela. Goizeko 9etan hasi eta eguerdiko 2ak bitartean, Goñati pilotalekua eta inguruak jendez beteta ibili ziren. Kanpotik saltzaile asko eta asko etorri zen arren, Mendaroko lau ordezkari izan ziren: Atxuri eta Lasalde baserriak, Mendaroko txokolateak eta Pott Zeramikaz arduratzen den Jose Urain mendarotarra. Udaletxean esan digutenez, izan duen arrakasta ikusita, litekeena da datorren urtean ere errepikatzea.



2



Gozozaleei ahoa urez beteko zitzaien feriarra ekarri zituzten pastel eta gozo guztiak ikustean.

Artisau ugari hurbildu zen Mendaroko feriarra eta horien artean haria nola egiten zen ikusi ahal izan genuen.



ORMOLA
TABERNA *Ondo pasa Gabonak!*
AZPILGOETA, TEL. 75 50 16 MENDARO

NAHIA
Zorionak eta urte berri on!
ILEAPAINDEGIA
Azpilgoeta, 16. MENDARO Tel. 75 51 01



Gabon garairako opari aproposa izateaz gain, kolorez jantzi zuten loreek Goñati pilotalekua.

Mendaroko Txokolateek beti izan dute izugarrizko arrakasta baina larunbatean marka guztiak hautsi zituzten!



Ganadua ezezik, hegaztien artean ere aukera majoa iritsi zen Mendaroraino. Ohiko hegaztiez gain bestelako bitxirik ere bazen.



Zaldiak, behiak, ahuntzak... Eta ardtalderik ere ikusi ahal izan genuen Mendaron. Hotzez edo, bata bestearen ondoan pilaturik harrapatu genituen.



3

Tellabide S.L.

ITURGINTZA

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

**Ondo pasa
Gabonak eta
Urte Berri On!**

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

ZELETA Barazkiak

*Sagar mota desberdinak, madariak, kiwiak,
babarruna, ... haza, ...*



*% 100 bertako produktua
BETIKO DENDETAN
AURKITUKO DITUZU.*

ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22 ELGOIBAR

Kontzertu Lirikoa izango da abenduaren 24an



Abenduaren 24an, igandea, eguerdiko 12,30etan eta Azpilgoetako elizan, Kontzertu Lirikoa entzuteko aukera izango da. Naroa Enekotegi txikitan herriko koruan hasi zen abesten. 14 urterekin New York-era joan zen maisu ospetsuekin bere ahotsa lantzen eta gaur egun Euskal Herriko hainbat herritan kontzertu lirikoak ematen ditu bai Bordelen bai eta Parisen ere. Pianoan Virginia Espinek lagunduko du, Donostiako goi mailako musikeskolan piano ikasketetan titulatu. Virginiak Roberto Bravo eta Ana Jastrzebska izan ditu irakasle eta Espainian zehar bai eta Iparraldean ere hainbat kontzertu eskaini izan ditu. Naroaren ohiko laguntzailea da eta biek izugarritzko arrakastak izan dituzte.

Kontzertuan besteak beste Vivaldi, Haendel eta Olaizolaren *Haurtxoa Seaskan* musika lanak entzuteko aukera izango da.

Mendaroko Abesbatzaren emanaldia

4

Abenduaren 25ean, Gabon Eguna, eguerdiko 12,30etan Mendaroko Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du Garagartzako elizan. Bertan, Hator, hator (Guridi), Oi Bethleem (Aita Donosti), Haurtxo Maite (F.Gruber), Egin lo (Brahms), Adeste Fideles (Anonimoa) eta Haurtxo Txiki abestiak entzun ahal izango dira.

Ikastolako ekintzak

Gabonetako oporrak gainean daudela eta, Mendaroko Ikastolak ekintza batzuk prestatu ditu bere ikasleentzat. Abenduaren 21ean, osteguna, Bilboko Gabonetako Umeen Parkera joango dira eta ostiralean, berriz, urteroko funtzioa egingo dute Ikastolan.



Pasa den ostiralean Kontzezio Eguna ospatu zen Mendarón. Meza ostean Haritz Dantzari Taldeak soka-dantza eskaini zuen eta, amaitzeko, pastak eta ardo goxoa dastatzeko aukera izan zuen Garagartzako Plaza ingurura hurreratu zen jendeak.

kiliBARRE

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Gabon Zoriontsuak  Mendarotarroi

Mutua General de Seguros
ORBEGOZO

Azpilgoeta, 5 • 20850 MENDARO
Tel-Faxa: (943) 75 51 47

EXMAHE S.L.
MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESCLUSIBAK

KONPONKETAK • MANTENUA
BIRMOLDAKETAK • SALEROSKETA

Mendaroko industrialdea, A-2-16. Tel. 75 50 93
20850 MENDARO

Belen Maidagan

Ion sastreriakoa

- **Zer arroparekin definituko zenuke zeure burua?** ▶ Gaztien erropiakin, bereziki bakeruekin.
- **Arropa klasikoa ala modernoa?** ▶ Klasikoak elegantiauak dia baina modernoarekin identifikatzen naiz.
- **Zure nortasunaren zein alde da eskaparatean jartzeko modukoa?** ▶ Umore ona.
- **Eta almazenean gordetzeko modukoa?** ▶ Jenio bizixa. Hasarratzen naizenean...
- **Etxean egoteko zein arropa?** ▶ Informala; txandala edo bakeruak normalian.
- **Jostun bat?** ▶ Adolfo Dominguez.
- **Zer ikusten duzu ispilu aurrean jartzen zaren bakoitzean?** ▶ Urriak pasatzen diala.
- **Udako arropa ala negukoa?** ▶ Udakua, kolore politxauak dituztelako eta soinekuak nahiz gona motzak asko gustatzen jatzelako.
- **Nor jaztea gustatuko litzaizuke?** ▶ Miguel Bosé, nere idolua da.
- **Zer ez zenuke inolaz ere jantziko?** ▶ Praka zabalak eta soineko luzeak, eta larruzko prakak ere ez.
- **Era berezian jantziko al zara urtea agurtzeko?** ▶ Ez, etxetik ez naiz ateratzen eta.
- **Eta urte berriari ongi etorria emateko?** ▶ Bai, nere gurasuen etxera juten goralako Mutrikura. Txaketo berrixakin jungo naiz, demaseko ilusiuakin gainera.
- **Eskatu urte berriari hiru desio.** ▶ Osasuna, lana eta HIESaren arazua hobetzia.
- **Kanpoko itxuragatik epaitzen al duzu jendea?** ▶ Ez, arropa arraruen atzian pertsona jatorrak egon leikez.
- **Zerk "berotzen" zaitu uztailean beroki batek beste?** ▶ Eskaparatia ipintzerakuan gauzak gaizki irtetziak.
- **Zure itxuraren atzean zer gordetzen da?** ▶ Preokupazio asko; jende gaztiak eta nagusixak arduratzen nau.
- **Arropa marka bat?** ▶ Gustatzen jatana erosten dot.
- **Ondarroa eta Debatik atera omen da jendea. Nora joateko?** ▶ Mutrikura dudarik gabe.
- **Zer du berezia Mutrikuk?** ▶ Herri oso dotoria da eta jendia oso majua. Gainera oso ambiente ederra egoten da jaixetan.

AMAIA GOROSTIZA




BERTSO ESKOLA HASI DA

DOINUA:

Pasaiako Plazatik

Bertso Eskolan dugu
orain hasiera
zerbait ikastea da
gure saiakera
ekainera heltzean
kurtso bukaera
bertso bat osatzeko
gai izango gera.


Aurten azalduko dut
saiatzen garela
besteak gure mailan
orain ez daudela
gauza bat garbi daukat
gustora gaudela
berriro hasi gera
urtero bezela.



JOSEBA ARRILLAGA



Azaroaren 27an, 63 urte zituela hil zen JOSE RAMON AROZENA ANSOLAren sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Ur, zabor eta alkantarila ordainagiriak

1995eko laugarren hiruhilabetekoari dagokion ur, zabor eta estolderia edo alkantarila erreziiboak ordaintzeko azken eguna hilaren 22a da. Epearen barruan ordaintzen ez dutenei %20 gehiago kobratuko zaie. Goizeko 11etatik 13era bitartean Udaletxeko bulegoetatik pasa daiteke.



Kirol Patronatuaren logotipo lehiaketa

Udal Kirol Patronatua sortzeaz dago eta hori dela-eta, Udal Kirol Zerbitzuak logotipo lehiaketa antolatu du. Banaka edo taldeka, teknika librean, zuri-beltzean zein koloretan aurkez daitezke lanak. A4 formatuan izan beharko dute, logotipoaren tamaina aukeran izango delarik. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 10a izango da ordu biak baino lehen. Sarituak 40.000 pta.koa saria irabaziko du. Berri gehiago jasotzeko 74 44 15 zenbakira deitu.



San Rokeko etxeak

Azaroaren 24an izan zen plenoan San Roke poligonoan etxeak eraikitzeko proiektua onartu zen. Gipukoako Boletinean argitaratu eta 20 egun daude alegazioak aurkezteko.

Gabonetako argiak auzoetan ere piztu dira aurten


Eguberriak bertan daude. Dendetako eskaparateetan zuhaitzak, jaiotzak eta bestelako gauzak ikusten hasi gara dagoeneko, eta herriko kale eta auzoetan ere Gabon ikutua ematen duten hainbat eta hainbat argi zintzilika-tu dituzte: 50 gutxi gora-behera, iaz baino 13 gehiago.

Urtero enpresa bati alokatzen zaizkio argiak. Aurten 8/10 modelo ezberdin ekarri dira Elgoibarre-

ra. Azken urteotan ohitu gara kalerik nagusienak Gabonetako argiz beteak ikustera baina aurten, lehen aldiz, hainbat auzotara ere iritsi dira argiak. Abenduaren 13an, Santa Luzia egunez piztu zituzten lehen aldiz argi guztiak herri osoan eta datorren urtarrilaren 7ra arte izango dira. Aurrekontua milioi bat pta ingurukoa da Udaletxeko iturriek esan digutenez.



■ ■ Kaleetan ezetik, Plaza handian ere jartzen dira Gabonetako argiak



**Metabo erreminta
elektrikoen eskualdeko
banatzailea**

HORNIDURA INDUSTRIALAK

■ MOZKETARAKO ERREMINTAK

■ BABES MATERIALA

■ ERRODAMENDUAK

■ LANPARA INDUSTRIALAK

Santa Klara kalea, 24 Tel/Faxa: 74 10 97 • ELGOIBAR •

Aita Agirre Eskolak

■ Aita Agirre plazan aurkitzen dira izen bera daramaten eskolak, beharbada biak, eskolak eta plaza, aldi berean sortu zirelako.

■ Ikastetxea plazaren lauki zuzenaren albo luze bat da, zoluko oinplanoak 650 m² hartzen dituelarik. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da hiru gorputzetan antolatua. Albokoak altuagoak eta fatxada nagusiarekiko perpendikularrak dira eta erdikoak paraleloa da.

■ Erdiko atalak beheko solairuaz gain beste bi ditu eta albokoek huez gain ganbara.

■ Harlangaitzez eraikia dago. Fatxada nagusian, arkuetan eta eskantzuetan kararizko harlandua erabili zen.

■ Alboetako baogunean hiru ardatzetan daude antolatuak. Beheko solairuan leiho txiki lauki zuzenak daude. Lehenengo pisuan arku karpnelak daude

eta bigarrenean tamainu berdineko leiho dintelduak. Ganbaran leiho borobilak.

■ Erdian, arkupe eder bat dago, pilareek erdi puntuko zazpi arku eusten dutelarik. Arkupe barruan bederatzi baogune daude. Hauetatik bost, ate dintelduak, harlanduz inguratuak daude eta ezaugarri berdineko lau leihorekin txandatzen dira. Zoladura lauki formako harlauzaz egina dago.

■ Arkupe barruan, lehenengo oinean, zazpi dinteldu daude harlanduz inguratuak leiho simple eta eskubandazkoak txandaturaz.

■ Arkuen gainean, erlaiz txiki batek bigarren solairuari hasiera emanaz, egurrezko galeria bat eratzen da, leiho zabalek harmora ordezkaturaz. Hemen Aita Agirre eskolako gelak daude.

PELLO ARRIETA



Tomas Astigarraga Bizikleta konpontzailea eta saltzailea (1913-1990)



- Amesti baserrian jaioa, 1913ko azaroaren 8an.
- Gaztetan okina zen. Gerra garaian Miranda de Ebroko azukre fabrikari egon zen preso, "Campo de trabajo" delako batean. Handik Sangesako gartzelara eta aske utzi zutenean okin lanean hasi zen Urkizuko okindegian.
- 1941ean San Frantzisko kaleko denda batean bizikletak alokatzen hasi zen. Geroago salmentari ekin zion. Hortik datorkio dendari "el alquiler" izena. Motorrak, motozerrak etab. ere konpondu eta saltzen zituen.
- 1994an ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen.
- Gure-Bide elkartearen fundatzaileetarik bat izan zen.
- Bere lanbideagatik eta izakera irekiagatik oso ezaguna eta estimatua zen herrian.
- 1990eko urtarrilaren 27an hil zen. Bere semeak, Jesusek, jarraitu zuen dendarekin.



Garbiñe Edergintza

- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta hotzean
- Solariuma

Zorionak
eta
Ute Berri On!

PM Urruzuno 27 Tel: 74 31 32

MOTZAK

14 domina lortu dituzte Ibai Klubeko judokek

Ibai Klubeko 15 judokak parte hartu zuen joan den hilaren 26an Ondarroako Kluben arteko Txapelketan. Emaitzak ezin hobekak izan ziren, 15 judoken artean, 14k lortu baituzten domina. Urrezkoa Aitor Mugerza eta Mikel Muñozentzat izan zen. Zilarrezkoa lau eskuratu zuten: Maialen Morak, Javi Muñozek, Aitor Gonzalezek eta Aitor Gabilondok. Bronzetzkoa honako hauentzat izan zen: Zuhaitz Martinez, Ekain Jimenez, Alberto Fernandez, Josu Tellabide, Maria Idiakez, Zuriñe Polo, Ana Estevez eta Miren Mugerzarentzat. Hilaren 16an, Gipuzkoako Txapelketan izango dira Ibaiko neska-mutilak.

Atletismoa benjaminentzat

Deba eta Urola aldeko herrietako benjaminentzako atletismo frogak burutuko dira larunbatean, hilak 16, goizeko 10etatik hasita Mintxetako atletismo pistan. Jolas modura, altura jauzia, luzera, pisu jaurtiketa eta atletismo lasterketak izango dituzte. Joan den astean, berriz, Muskizen izan zen kros herrikoian izan ziren Mintxetako neska-mutilak. Txikitxoan mailan Aitor Arrillaga bigarren izan zen eta Alberto Cardaba zazpigarren. Benjaminetan Unai Etxeberriak hirugarren postua eskuratu zuen eta Julen Merinok bosgarrena. Alebinetan Ana Etxanizek hirugarrena eta Javi Ausinek hamargarrena eta infantiletan Mireia Huidobro hamargarren iritsi zen helmugara. Taldeka Mintxetako mutilak lehen postua lortu zuten.



Ivan Fernandez

"Azkenerarte borrokatzea gustatzen zait"

■ Noiz hasi zinen xakean?

- Orain dela urtebete edo. Zubi-Ondo elkartearen, Tomas Condek ikastaro bat eman zigun. Baina txikitak ez nuen asko jolasten.

■ **Zein dira gauzarik funtsezkoenak?** - "Aperturak" edo irekieretan zein mugimendu egin eta amaierak ere nola egin. Poliki-poliki akatsik ez egiten eta mugimenduak pentsatzen ikasten noa.

■ Etxean jokatzen duzu xakean?

- Bai, anaiarekin.

■ Eta nork irabazten du?

- Lehen berak baina orain nik.

■ **Galtzen duzunean haserretzen zaren horietakoa zara?** - Ez, ez naiz haserretzen baina nire anaia bai.

■ **Txapelketa askotan jokatu duzu?** - Errosario kaleko txapelketan, Nazioarteko Xake Txapelketan bi aldiz eta orain herri mailakoa jokatzen ari naiz. Irabazi dudak bakarra aurtengo Nazioarteko Xake Txapelketan herrikoen artean jokatu duguna da.

■ **Zer moduz zoaz?** - Nahiko ondo. Lehenengo postuetan geratzeko aukera badaukat baina ezingo dut irabazi.

■ **Jarraitu duzu Nazioarteko Xake Txapelketa?** - Ez gehiegi. Behin egon nintzen piskat partidak ikusten. Maila handiko jokalaririk ziren.

■ Zein figura duzu

• Adina: 13
• Zuriak ala beltzak? Beltzak nahiago ditut
• Zenbat tablero dituzu? Bi
• Hobbyak? Futbola, saskibaloia, eskubaloia eta arrantza



gogokoen?

- Erregina. Mugimendu aukera gehien eskaintzen duena da, bai horizontalean bai bertikalean.

■ **Ba al duzu sekula huts egin ez dizun taktikarik?** - Badago asko gustatzen zaidan irekiera bat, "zaldiena". Erregiaren peoiarekin irekitzen da partida, eta ondoren bi zaldiak. Besteari erregiaren peoia jaten zaio eta horrela arerioak ezin izaten du bere zaldia atera.

■ **Nori irabaztea nahiko zenuke?** - Bada algoibartar bat beti irabazten didana. Maila antzekoa dugu baina beti geratzen da aurretik.

■ **Azkenera arte borrokatzen duzu?** - Bai, beti ahalegintzen naiz irabazten. Erregiarekin bakarrik geratzen banaiz eta kontrakoak zaldiren bat edo erregina baldin badauka, orduan galdutzat ematen dut partida.

■ Damak gogoko?

- Bai, lagun batekin jokatzen dut berak ez daki xakean eta. Baina xakean hobea naiz eta gainera gehigo gustatzen zait.

NUTRIZIOARI BURUZKO HITZALDIA

OBESITATEAREN ZERGATIAK ETA ARRISKUAK. Nola argaldu gaixotu gabe.

HIZLARIA: Edurne Ugarte (Endokrinologian eta Nutrizioan sendagile espezialista)

Abenduak 20an, asteazkena • Kultur Etxean • Arratsaldeko 7etan

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E.

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia

Marcelino Sion leondarrak irabazi zuen Xake Txapelketa

Gutxik espero zuten Marcelino Sion leondarrak Nazioarteko Xake Txapelketa irabaztea. Maila handiko xake jokalariai parte hartu bazuten ere, azkenean Sion nagusitu zen. Bigarren, euskaldun bat sailkatu zen, Felix Izeta. Hirugarren, Daniel Campora izan zen; laugarren, Nicola Mitkov mazedoniarra eta bosgarren, Elizbar Ubilava georgiarra. Sailkape-

neko gainontzeko postuetan Anthony Kosten, Jesus Iruzubieta, Mario Gomez, Normund Mienzis eta Jesus De la Villa geratu ziren hurrenez hurren. Haurrentzako xake txapelketa herriko 15 neska-mutilek hartu zuten parte. Benjaminetan Beñat Gutierrezek irabazi zuen, alebinetan Maite Uriartek eta infantiletan Ivan Fernandezek.



■ ■ Argazki txikian Marcelino Sion irabazlea. Goian partehartzaileak eta haurren txapelketako partaideak.

• Kirol Flasha • Kirol Flasha • Kirol Flasha •



Ibai gimnasioko Taekwondo irakaslea den argazkiko Josune Altuna eibartarrak gerriko beltzaren barruan dauden kategorien artean, 2. dana deritzona eskuratu du. 22 urteko neska honek 2. dana lortzen duen lehen emakume gipuzkoarra da. Asteazkenean Ibai gimnasioan eta Eibarren ere ematen ditu Taekwondo klaseak. Ibai gimnasioan 12 ikasleri ematen die klasea, konpetizioan dabilzan bost ikasle eta konpetizioan ez dabilzan zazpi. Oraingoz lortu berri duen gerrikoa estreinatu baino ez duen arren, 3. dana eskuratzeko asmoa ere baduela aitortu digu. Dena den, bi urte pasa beharko dira hori gertatzeko, arauak hala agintzen dutelako.

Futbola

Haundi 2 - Aurrera Ondarru 1
Elgoibar 3 - Kilimon 1 (1. erreg.)
Urola 1 - Elgoibar 1 (Jubenilak)
Zarautz 1 - Elgoibar 1 (Kadeteak)
Arantzazuko Ama 5 - Elgoibar 2 (Infantilak)
Elgoibar 3 - Bergara 0 (Neskak)

Areto Futbola

Patés Zubia 6 - Elgoibar F.S. 1 (1. maila)
C. Suarez 5 - Elgoibar F.S. 5 (2. maila)

Eskubaloia

Urnieta 12 - Pagoaga Elg. 22 (Kad. neskak)
Tolosa 22 - Elgoibar 39 (Kad. mutilak)
Aloñamendi 23 - Elgoibar 23 (Jubeniak)
Txankakua Elg. 27 - Ereintza 16 (Seniorrak)

Futbitoa

King Kong 9 - S. Karapola 0
Pedruskos 3 - Luky Luke 1
Karkis 5 - Berrogei Duro 2
P.S.K. 8 - S. Pitxote 2
Aterpe 2 - Oraiko Disko 3

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 16

12,00 Elgoibar - Almen (Kadeteak)
13,45 Urki B - Lagun Onak (Jubenilak)
15,30 Gazteak - Lazkao (Jubenilak)
17,15 Elgoibar - Ordizia (Jubenilak)

Igandea, 17

10,00 Gazteak - Segura (2. erreg.)
12,00 Elgoibar - S. Tomas Lizcoa (Infantilak)
13,45 Urki A - Arrasate (Jubenilak)
16,00 S.D. Eibar - Dunboa (1. erreg.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 15

22,00 Elgoibar F.S. - Ryder (2. maila)
23,00 Elgoibar F.S. - Astilleru (1. maila)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 16

16,00 Elgoibar - Hondarribi (Jubenilak)
17,30 Txankakua Elg. - Leizaran (Seniorrak)

Futbitoa, Urсандin

Igandea, 17 (Arbitraia: Berrogei Duro)

10,00 Orbela - Rebel Urbi
11,00 Sanroketarra - Ikus Optika
Roke - Udaberri
12,00 Kosakos - Aldavas
Ametsa - S. Braga

Pilota, San Migelen 12,00etan

Beraza/Gabilondo - Agirrebeña/Loidi (1. maila)
Urrategi/Murua - Urtubia/Osoro (2. maila)

95 Kirolari onena

Abenduak 21, osteguna
Arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean

MAHAINGURUA

Partaideak: • **JOSEBA ETXEBERRIA** Athletic-eko futbolaria
• **JON ODRIOZOLA** Gewiss taldeko txirrindularia
• **JOKIN ERRASTI** pilotaria
• **JOSE LUIS KORTA** Orioko arraun taldeko patroia.

Moderatzailea:

• **J. MARI APAOLAZA** Euskadi Irratiko kazetaria.

Segidan **KirolBARREN 95** eta **BARREN sariak 95** banatuko dira.

BABESLEA:
TXANKAKUA
Merkatari elkarte



LAGUNTZAILEAK:
UDAL KIROL
ZERBITZUA



1995eko KIROLARI ONENARENTZAKO HAUTAGAIK



JUDO

Gorka Garate (15 urte)

- Euskadiko 17 urtez azpiko Txapelketan brontzezko domina.
- Brontzezko domina Andorako Nazioarteko Txapelketan eta Gipuzkoako 17 urtez azpiko Txapelketan.
- Gipuzkoako 17 urtez azpiko selekzionako preselekzionatua.
- Eibarko Nazioarteko Txapelketarako hautatua.



FUTBOLA

Joseba Etxeberria (18 urte)

- Urrezko bota eskuratu zuen Qatar-eko mundialean. 7 gol sartu zituen. Beste gol bat sartu izan balu burutu diren mundial guztietako errekorra hautsiko zukeen.
- Real Sociedad taldean jokatzeko zela Athletic-ek fitxatu zuen. Estatuko jokalarien artean fitxajerik garestiena izan da.
- Athletic Club-eko 3.500. gola sartu zuen.



ATLETISMOA

Gorka Sanchez (14 urte)

- Federazioak antolatutako hiru frogatan garaile izan da.
- Gipuzkoako Kros Txapelketan bigarren postua eta Euskadiko Txapelketan laugarrena.
- Gipuzkoako kadete mailako selekzioko kidea da.
- 1.000 metroan bere markarik onena: 2'55".



IGERIKETA

Ines Segura (12 urte)

- Aurtengo denboraldiak bere marka pertsonalak hobetu ditu Lepazpi, Altxa, Oñati eta Arrasaten burututako txapelketetan.
- Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen.
- Markarik onenak: 200 estilo bakarra : 03'24"76, 100 tximelata: 1'38"57, 100 bularka: 1'40"00 eta 100 libreak: 1'20"74.



TXIRRINDULARITZA


Arkaitz Martínez (15 urte)

- Kadete mailan lehenbiziko postuak lortu ditu hainbat lasterketan: Zarautzen bigarrena, Ibaetan eta Azpeitian hirugarrena, Urretxu eta Elgoibarren laugarrena eta Bergaran bosgarrena.

BARREN sariak 95

Gabon egun bezperan, **BARREN**ek 3. urtebetetzea egiten du. Ospatzeko **BARREN** sarien hirugarren edizioa eta 1995eko Kirolari onenaren aukeraketa antolatu da. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. **BARREN**en egunero lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertu nahi dugu. **BARREN** sariak astekari kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.

Kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi badizkiegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik, urtero antolatzen dugun sariketa honek lagun arteko bilkura nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.



HERRI KIROLAK

Jabier Arriola "Egi" (21 urte)


- Euskadiko I. Federazio Txapelketan irabazle.
- Orion izan zen "Luis Atxaga" Sarietan bigarren sailkatu zen zortziko harri kubikoarekin.
- Gipuzkoako Txapelketan bigarren izan zen. Hiru minutuko saio batean 100 kiloko kubikoarekin Euskal Herriko errekor berria ezarri zuen 39 jasoaldi eginez.



ARETO FUTBOLA

Oscar Díez (22 urte)

- 94/95 denboraldian jokalaririk onena eta goleatzailearik onena 15 golekin.
- Gipuzkoako selekzionako hautatua 23 urtez azpitik, Gipuzkoako Txapeldun geratu zelarik.
- 23 urtetik beherako Euskadiko selekzionako hautatua. Espainiako Txapelketa jokatu zuen joan den apirilean Andorran (Teruel).



EHIZA

Patxi Arriola (31 urte)


- Aurtengo denboraldian, "Ehiza xehe" deritzon San Migelen izandako Elgoibarko Txapelketan eta Eibarren burutu zen eskualdeko txapelketan bigarren sailkatu zen.
- Azaroan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak lortu ditu.
- Espainiako oilagorren txapelduna izan zen iaz.



MENDIA

Aritza Monasterio (30 urte)

- Copa Central (6.080m.) tonorrera igoera maiatzean.
- Alpamayoko gaina (5.947m.) eta Quitajaroko tonorra (6.040m.)
- Artesonraju (6.025m.) eta Piramide de Garcilaso (5.885m.) uztailean. Azken honetan bide berria ireki zuen 5.700m.ra arte.
- Andeetako gida ofiziala da.



KARATEA

Juan Carlos Mancebo (24 urte)

- Klubeko lehen gerriko beltza.
- Honako karatelari ospetsuen ikastaroetan izana:
- Taiji Kase maisua (9. DAN)
- Luis Mari Sanz (Munduko txapelduna, 5. DAN)
- Felix Saez (6. DAN)

Amodiozko Gutunen IV. Berrigara Lehiaketa

Bergarako herri astekariak Amodiozko Gutunen IV. edizioa antolatu du. Euskaraz eta lehenago argitaratu gabeko eskutitzak aurkez daitezke, gutun formarekin. Lanen luzera bi orritakoa izango da gehienez, eskuz zein makinaz. Lanak aurkezteko azken eguna 1996ko urtarrilaren 16a izango da. Irabazleak 75.000 pta.ko saria jasoko du. Lanak helbide honetara bidali: "Amodiozko Gutunen IV. Berrigara Lehiaketa", Jardun Elkartea, Masterreka, 13 behea. 20570 Bergara (Tel: 76 08 19).

650. urteurreneko logotipo lehiaketaren irabazlea

Maite Rementeriak, BARREN asteriko maketazailak irabazi du Udalak antolatutako Elgoibarko herriaren 650. urteurreneko logotipo lehiaketa. Partehartzaile askok aurkeztu zituzten logotipo posibleak, 20ren bat lan guztira. Logotipo irabazlea 650. urteurreneko ospakizunetan bai Udalak bai kolektiboek antolatzen dituzten ekintza guztietan erabiliko da. Epaimahian Kokoeko, Egurreko eta Udaletxeko ordezkariak izan ziren. Maitek 40.000 pta. jasoko ditu lehiaketa irabazteagatik.

Luzianoren lanak hilaren 17ra arte ikusi ahal izango dira

Luziano elgoibartarraren erakusketaren inaugurazioa izan zen hilaren hasieran. Pintoreak aurkezpen hitzak esan eta gero, ikusgai dauden kuadroen nondik-norakoak azaldu zituen Kultur Etxeko erakusgelan bildu zen ikuslegoaren aurrean. "Santa Klara komentu ingurua, nire jaiolekua, abiapuntutzat hartzen dut kuadro asko margotzeko" zioen Luzianok. Txoko pintoreskoak, errustikoak, atsegin ditu bere koadroetan isladatzea. Getaria, Orio, San Migel auzoa, Donostia, autoe-

retratu bat, Marokkoko motiboak eta egileak imajinatutako txokoek osatzen dute erakusketeta.

Margo batzuk erliebe handia dute, beste batzuk difuminatu xamar margotuta daude, "bi estilo hauek eta beste batzuk ere landu nahi izan ditut. Koadroa eta ikuslearen artean distantzia egonez hobeto apreziatzen dira koadroak.

Ohitura duen bezala, Luzianok koadro bat eman zuen, Plaza Handiko panoramika bat, Udalaren jabetzakoa izango dena. Lanak ikusteko azken eguna 17a da.



DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN



KAFETEGIA
Traspasuan
74 26 21



LURRINDEGIA
San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99

*Gabon Zoriontsuak
igaro eta
Urte Berri On!*



*Kartutxo
Pub*

S.Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

Kilometroak 96ko logotipoa, leloa eta zirkuitua ezagunak dira dagoeneko



1996ko urriaren 6an Elgoibarren ospatuko da Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaia, Elgoibarko herriaren 650. urteurreunarekin bat eginez. 20. edizioaren, antolakuntzan buru-belarri ari dira dagoeneko Ikastolakoak eta Ikastolen Elkartekoak. San Frantzisko kaleko Kutxaren egoitzan Kilometroen logotipoarekin salgai daude hainbat artikulu. Joan den astean Udaltxean egin zuten Kilometroak 96 jaiaren aurkezpena. Han izan ziren Guillermo Garate alkatea, J. M. Sarasua Ikastolako presidentea, Alfonso Guilló Ikastolako zuzendaria, Mari Jose Ulazia Kilometroak jaiaren koordinatzailea eta Zuriñe Mendizabal Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko ordezkaria. Urriaren 6an, 100.000 lagunetik gora biltzea espero dute.

Martxan dagoeneko

Logotipoa egin dago baita leloa edo lema eta zir-

kuitua bera ere: "Banoa, banixe, euskara bai horixe", Ikastolako irakasleek asmatutakoa da. Logotipoa Graficas Zubiaurre enpresan egindakoa da eta zirkuitua leku hauetatik pasako da: Ikastolan hasi, Mintxeta segidan; hemendik Azkarateko bide zaharretik Upaitza aldera, Albitxuri eta azkenik Ikastola. 6,5 km. guztira.

Kilometroen 20. edizioaren antolakuntzan talde iraunkor bat 12 bat kidez osatua, talde aholkularia herriko erakundeetako ordezkariak osatua eta trafiko, salmenta, kultura, ekonomia, publizitate eta zerbitzu batzordeak eratu dira eta guztia koordinatzeko pertsona bat izendatu da, Mari Jose Ulazia ikastolako irakaslea. Koordinatzaileak aurkezpenean azaldu zenez, lau helburu izango ditu Elgoibarren ospatuko den jaiak. Batetik, Ikastolen eguna ospatzea. Bigarrenik,



Ikastolako eta Udal ordezkariak izan ziren aurkezpenean.

atorren urtean San Bartolome Ikastolan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak martxan jartzeko beharrezkoak izango diren inbertsioak egitea. Hirugarrenik, euskararen normalizazioaren alde lanean jarraitzea eta, azkenik, Elgoibarko herria Euskal Herri osoan ezagutaraztea.

Ekintzak eta bestelakoak

Ongarri argazki taldekoen laguntzaz egindako Kilometroen egutegia salgai dago. Gabonetarako kantategi bat ateratzeko asmoa

dute aintzinako eta gaur egungo abesti ezagunekin. Otsailean Pedro Luis Ormazabal argazkilaria bergararren erakusketa burutuko da, Oteizaren lamina bat oparitutako delarik. Kilometroak 96ko kanta egiteko, herriko musika talde eta erakunde guztien partehartzea eskatuko dute: Banda, txaranga, rock taldeak, abesbatzak... Eta urtean zehar hainbat ekitaldi antolatuko dira: kontzertuak, antzerkiak, haur krosaren 3. edizioa, futbol partiduak, etab.

OIERKI IGONGAILUAK
 Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
 ☎ (943) 11 35 15 • 📠 ABERIAK (943) 11 35 15
 Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.
 Bidriera artistikoak
 Obra komertzialak
 Urasandi 12 behea
 Tel-Fax: 74 04 89

PEDRO PEREZ BERISTAIN
 San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
 KOMUNITATEA BERRIKANTZADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
 MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
 San Roke, 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

Deutsch

Gero eta jende gehiago hasi da alemana ikasten. Oraindik ere hizkuntzarik nagusia ingelesa bada ere, poli-ki-poliki beste hizkuntza ba-tzuk sartzen ari dira, baita Elgoibarren

ere. Badirudi alemanak etorkizun- an garrantzi handia izango duela, hala diote adituek. Guk ikusi dugu-

naren arabera, oraingo gazteak benetan prestatuak datoz. 14 urterekin, badira euskara eta gaztelera ezezik, alemana, ingelesa eta frantsesa ere dakitenak.



OIHANE ZUBIAURRE
17 urte

1. Iaz hasi nitzan.
2. Txikitatik gustatzen zaizkit hizkuntzak eta beste bat gehixo jakin nahi naban. Gainera, itzultzaile izatia gustatuko litzaidake eta bestela enpresekin zerikusia dakan zeozer eta bietan hizkuntzak jakitia inportantia da.
3. Ingelesa nahiko ondo eta aurten frantsesak hasi naiz.
4. Gustau alemana baina zailena da eta gehixen ingelesa menperatzen dot.
5. Inoiz ez naiz egon inun baina badakat asmua. Igual karrera amaitzen dotenian, lanian hasi baino lehen urtebeterrako jutia nahiko nuke.
6. Wie gehts? Zer moduz zaude?

1. Zenbat urte daramazu alemana ikasten?
2. Zergatik? 3. Beste hizkuntzarik ba al dakizu?
4. Guztietatik gustukoena? 5. Izan al zara Alemanian? 6. Alemanez ikasi zenuen lehen hitza?



IDOIA AGIRREGOMEZKORTA
14 urte

1. Iaz hasi nitzan.
2. Hizkuntzak ikastea gustatzen zaidalako eta etorkizunera begira ere garrantzitsua delako.
3. Ingelesa orain bost urte hasi nitzan ikasten eta aurten frantsesarekin ere hasi naiz.
4. Alemana.
5. Ez. Ingalaterran iaz egon nitzan hilabete. Ikasteko erarik onena da.
6. Hallo, kaixo esan nahi du.



MIKEL ARRILLAGA
25 urte

1. Oin dala bi urte inguru hasi nitzan.
2. Kanpo komertzioan egiten dot lan eta zelan jende gitxi dauan alemana dakixana, ikasten hastia pentsatu naban.
3. Ingelesekin Ikastolan hasi nitzan eta frantsesa defenditzeko beste dakit.
4. Alemana gustatzen jata gehixen baina zailena ere bera da.
5. Alemanian egon naiz baina laneko kontuekin. Onena herrialdera bertara jutia da hizkuntza ikastera baina garestiena ere bada.



OIER GOIKOETXEA
20 urte

1. Uztaillian intentsibat egin naban, egunero bi ordu eta oin jarraitxu ein dot.
2. Ingelesekin urte mordua daramat, eskola ofizileko 3. maila ezin aterata, eta zeozer desberdina ein nahixan alemanekin hastia pentsatu naban. Gainera, irteerak dakala kontuan euki bihar da. IMHn premodulua ikasten nao eta kanpora juteko hobeto da norbera bakarrik jutia itzultzaillakin baino.
3. Ingelesa.
4. Ingelesa. Baina alemana askoz zaila da, gauza gehixo ditxu, pronunziatzeko zaila... Neretzat ez da polita.
5. Ez, gainera ez jata gustatzen kanpora jutia.
6. Gut morgen, egunon.



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

KEMEN

Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Salerosketak

"LA UNION CAZA Y PESCA" elkarteko bazkide postua salgai.
☎ 74 26 45 Modesto

DERBI 75 C.C. trukatua salgai. Egoera oso onean.
☎ 15 04 41

NINTENDO CONSOLA saltzen dut. Bi mando eta Shadow Warriors-a.
5.000PTA.
☎ 74 35 64 Soto

NISSAN PATROLA SALGAI: 6 zilindro, gurpil zabalak, 92. urtekoa. BI-BK.
1.850.000 pta.
☎ 74 07 04 Jon
(17,00-20,00 deitu)

FORD FIESTA BAT saltzen dut. 1.800 VAN diesela.
SS-AJ. 485.000 pta.
☎ 908 67 14 91

ORDENAGAILU BAT saltzen dut: IBM AT 286
☎ 74 19 21 Maite

ERREPIDEKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean. Berria.
☎ 74 01 84

Komedorerako aulki batzuk saltzen ditut. Egoera oso onean daude.
☎ 74 37 22 (goizez 8-10)

1,05 oherako BI EDREDOI SALTZEN DITUT modu onean.
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA txiki bat saldu nahi dut. Orbea markakoa.
☎ 74 34 06

GAC ZIKLOMOTORE BAT saltzen dut. 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

Etxebizitzak

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 11 52 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAN. Amueblatua. Hondartzatik gertu.
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06
M. Carmen edo Aurora

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Maria Oliva
Goizez 9,30-13,30

Lana

Emakume helduak ETXEKO LANAK EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko lituzke.
☎ 74 32 51 Pili

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 74 29 56 Gema

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego
(Erizain diplomatua)

Garajeak

GARAJE BAT ALOKATZEN dut Pista beltzean. Marraduna.
☎ 74 21 64

GARAJE ITXIA alokatzen dut San Roken, Telefonika parean.
☎ 74 21 18 (9etatik aurrera)

Partikularrak

Injineritza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

Agurrak

6. mailako Iker Martinez, Oier Rubio, Unai Garate, Zelai Garcia, Joseba Gonzalez, Gaizka Etxaniz eta Asier Aranberriren partez agur bero bat Amaia Madariaga, Iraia Silva, Ane Palomino, Erika Lehr, Amaia Polo, Miren Bereziartua eta Maitane Oriari.

Bestelakoak

URREZKO PULTSERA BAT galdu dut. Loli izena darama grabatua.
☎ 74 20 45 Loli

Abenduaren 4an, astelehena, ATERKI GORRI BAT beste granate batekin trukatu zuenak utz dezala Udaltzaingoa.

Pistatxo koloreko HAUR NEURRIKO TXAMARRA galdu dut Urasandin.
☎ 74 32 96

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala ...756100
Ongizate zerbitzua...741008
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
Haur Eskola.....742141
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki74 34 74

ASTEAN ZEHAR

15 OSTIRALA

22,30 HIRU TRUKUren
KANTALDIA

✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra
Sarrera: 500 pta.

16 LARUNBATA

10,00 ATLETISMO FROGAK

Benjaminentzat
✓ Mintxetan
Antolatzailea: Mintxeta Atletismo T.

10,00 PITXOI TIRAKETA

✓ Albitxurin
Antolatzailea: La Unión

19,30-22,15 ZINEA

“La flor de mi secreto”

17 IGANDEA

16,30 ZINEA

“Mis aventuras con Nanuk el
esquimal”

19,30-22,15 ZINEA

“La flor de mi secreto”

18 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“La flor de mi secreto”

19 ASTEARTEA

19,00 HITZALDIA

HIESari aurea hartzeko heziketa
Hizlaria: Ana Las Heras psikologa
✓ Mekanikako Aretoan
Antolatzailea: Arreiturre-B.Ecenarro

22,00 ZINEA

“La flor de mi secreto”

20 ASTEAZKENA

19,30 HITZALDIA

Gaia: Obesitatearen zergatiak eta
arriskuak
Hizlaria: Edurne Ugarte.
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

21 OSTEguna

17,00 ZIGOR GAZKEzen
KANTALDIA

Udal Euskaltegiko ikasleentzat
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal Euskaltea

19,00 KIROL BARREN eta
BARREN SARIEN EKITALDIA eta
MAHAINGURUA

Partehartzaileak: Joseba Etxeberría,
Jon Odriozola, Jokin Errasti eta
Jose Luis Korta.
Moderatzailea: Jose Mari Apaolaza
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: BARREN astekaria
Laguntzailea: Udal Kirol Zerbitzua

22 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

19,00 GABONETAKO
KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

22,15 ZINEA

“Mi familia”

txandak FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAJEZ
16, larunbata:	Etxeberría	Zabaleta
17, igandea:	Etxeberría	Zabaleta
18, astelehena:	Yudego	Yudego
19, asteartea:	Yudego	Yudego
20, asteazkena:	Yudego	Yudego
21, osteguna:	Yudego	Yudego
22, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Plazentzia
Te. 75 13 84 I

OKINDEGIA:

17, igandea: EIZAGIRRE



La flor de mi secreto

Zuzendaria: Pedro Almodovar
Antzezleak: Marisa Paredes, Juan
Echanove, Carmen Elías, Rossy De
Palma, Chus Lampreave.

Leo Macías deprimituta bizi den
idazlea da. Nobela arrosa eta merke-
ak idazten ditu gaitzizenpean. Sena-
rra, militarra, Bruselas-en dago eta
bien arteko harremana haustear dago.
Leok alkoholarekin arazoak dauzka.
Egun batean El País egunkarian arti-
kulu kritikoak idazteko nahia sortzen
zaio. Egunkariko zuzendaria ezagu-
tuko du. Honek nobela arrosen idaz-
leari buruzko kritika idaz dezan
eskatzen dio, benetako egilea zein
den jakin gabe. Senarrak Bruselasetik
datorrela azaltzen dio. Leoren arazo-
ak areagotu egingo dira eta ezingo du
kontrolatu egoera.



Bitsidenda

San Frantzisko 26. ☎ 74



Gabonetako eskaintza berezia

Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!

Zatoz eta 1.000 pta.ko gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.

*Zatoz!
Zure zain
gaude.*

ADATE



XIGORTZE

K O M E R T Z I A L A



KAFE MAKINA BANATZAILEA
ETA VENDING ZERBITZUA



San Roke, 7 beheha • ELGOIBAR • Tel. 74 34 01

igu
k egiten

in harririk
zen.
ra ardo mo.
ra kafe mo.
egiten
mek.
ikaririk
ebor dugu.

FFE
QUE

café de especialidad

*Datorren
astean
irekiko
dugu*